LUPABEKIO
Elixabete Garmendia
KAZETARIA

Zuzentasunaren paradisuak

JUDIT FERNANDEZ

Aurrezki kutxetako iragarkiak bihurtu dira azkenaldian zuzentasunaren bozeramale. Bizkaikoak, orain hilabete batzuk, bizitza sano eta zoriontsurako aholkuak ematen zituen: neurrian eta taxuz jan, ariketa egin, baita sexuala ere, zaletasunen bat praktikatu eta... noizbehinka libururen bat irakurri. Ehun urte bete zituela-eta telebistaz emititutako zortzi minutu t´erdiko bideoan, norbanakoaren bizitzatik haratago, jardun kolektiborako arauak ere ematen zituen. Antologikoa. Neurri txikiagoan, Gipuzkoakoaren iragarkiek ere bide beretsutik jotzen dute. Osagaietan "politikoki zuzena"ren topiko guztiak: gizatasuna, berdintasuna, kolore eta jatorri guztiak geure egitea, natura zaintzea... Txapelduna, dena den, Nafarroakoa gertatu da, "Revolución" aldarrikatuz sartu baita ondoko probintzietan, kolore gorriz apainduta, bide batez sanferminetako zapia soinean.

Egia esan, beti izan dute aurrezki kutxek aginterako joera. Joan den mendearen lehen erdiko karteletan dago orduko mezua: aurreztu ezazu! Gaur egun, aurreztea sustatzeko egiten dituzten kanpainetan, oraindik jubilaturen bat edo beste engainatuko dute, etxera eraman dezan begiratu hutsarekin pitzatzen den kopa kolekzioa edo sekula erabiliko ez duen maleta jokoa. Sustatu, benetan sustatzen dutena, ez baita dirua aurreztea, xahutzea baizik, zorpean bizitzea behin betirako. Tonu txistosoan, pisua, norberarena ez, aurrezki kutxarena dela esatea, errealitatea deskribatzea besterik ez da. Berdin aipa genitzake autoa, plasma telebista, bainu-ontziaren ordez jarritako dutxa edo modako tokiren batera egindako bidaia.

Aurrezki kutxetako iragarkien sortzaileak ez dira batere ergelak, ez inozoak. Mundu atsegina, ziurra, samurra, erosoa irudikatzen dute. Paradisu domestikatu eta zibilizatua, ongizatez borborka. Badaezpada, ezustekoren bat dagoenerako ere badituzte irtenbideak. Alegia, zu hilko bazina, zure ondorengoei gauzak ondo bideratuta uzteko modua eskaintzen/gomendatzen dizute.

Kontua da heriotza iritsi bitartean bizi beharra dagoela, ahal den ondoen. Eta hor lanak. Gertatzen da, adibidez, Iberdrolak igogailurako argindarra etenda uzten duela ostiral batean, ezinduta dagoen pertsona etxera itzuli eta bigarren pisura igo ezinik. Deitu fakturan jartzen duen telefonora, eta makinari atarikoak esplikatu ondoren erantzuten dizute auskalo nondik, zure herria kokatzen urrutitik ere ez dakiten tokiren batetik nolanahi ere. Arazoa azaldu eta ematen dizuten soluzioa hauxe: bilatzeko matxura konponduko duen elektrizistaren bat eta hortik aurrera, hau da, astelehenean, joango dela teknikoa. Elektrizista bilatu, ikerketan hasi eta... deskubrimendua: kontagailurik ez dago. Eguerdian ibili den Iberdrolako langileak –subkontratatuak– eraman du nonbait, erratuta.

> Lehiatu, publizitatean lehiatzen dira, ez zerbitzua behar bezala eskaintzeko garaian. Eta, hori bai, den-dena, aurrezki kutxekin partekatzen duten zuzentasunaren diskurtsoa beti aurretik jarrita

Telefonikarekin, antzera. Bi aste, dei saio amaigabeetan, matxuratuta dagoen tresna aldatzeko eskatuz. A! eta euskaraz mintzatzeko aukera, ahaztu, bestela oraindik hor zaude makinarekin hizketan trabatuta, aurrera egin ezinik.

Zerbitzuetako enpresa handien gaur egungo protokoloak horrelakoxeak dira. Kalitatearen K, Q, edo dena delako ikurrak harro erakutsiko dituzte. Iragarkirik garestienak ordainduko dituzte energia berdea eta komunikazio mugagabeak aginduz. Lehiatu, publizitatean lehiatzen dira, ez zerbitzua behar bezala eskaintzeko garaian. Eta, hori bai, den-dena, aurrezki kutxekin partekatzen duten zuzentasunaren diskurtsoa beti aurretik jarrita. ■